



KORSIKARA BEGIRA EUSKAL HERRIA IKUSI

Gaurko European askapen nazionalaren aldeko burruka bizia daramaten artean Korsika dago. Orain dela urte pare bat «Autonomi Estatutu» berezia eman zion Frantziako Estatuak. Ordutik honera bere Batzarre (Parlamentu) «erregionala» du. UPC, alderdi autonomista joko horretan sartu zen.

Bi urtetan ongi erakutsia du Korsikako «Autonomi Estatutuak» —eta horretatik sorturiko Batzarre eta Gobernu erregionalak— ez daukala irtenbiderik benetako autogobernua lortzeko, eta inola ere ez Irlaren deskolonizazioa burutzeko. Nabarmen geratu da horixe berriki Korsikeraren irakaspenari buruzko arazoan.

Batzarre erregionalak onartu zuen Korsikeraren irakaspenera nahitaezkoa izango dela. «Bosketa historikotzat» jo zuten Batzarreko indarrek. Baina laister etorri da Paris-eko betoa, Korsikako botoaren kontra. Ondo nabarmen geratu da bertan, Batzarre erregionalak duen indarra Pariseko Gobernuaren aurrean! Mauroy, lehen ministroariak gutun bat idatzi du, korsikar hizkuntzari eta kulturari buruz, «bozketa historiko» hura hankaz gora boteaz.

Ezagunak zaizkigun kontzeptuak erabiltzen ditu Mauroy jaunak bere gutunean: «Kultura eta hizkuntza erregionalak», batetik, «ondare nazionala» (frantsesa noski!), bestetik; argudio bitxia —guretzat aski entzuna

agian— Mauroy jaunak erabiltzen duena, korsikera ikastera inor ez behartzeko: «Ez dago nahi ez dutenak ikastera behartzerik... Ez al duzue us-te, hizkuntza eta kultura baten aberastasuna eta dinamismoa beste inola baino hobeto daudela salbaturik, guztiei horiek ikasteko benetako ahalbidea emanik?».

Betikoa da. Frantziaren eta Espainiaren arrazoa berdina da: Espainiera edo frantsesa ikastêa nahitaezkoa da (hori da nonbait horien aberastasuna eta dinamismoa salbatzeko bide-rik egokiena); korsikera —eta euskara—, aldiz... Vive la liberté!

Baina Korsikaren askapenaren eta deskolonizazioaren aldeko burruka

erotikakoa beste nonbaitetik doa. Ba da F.L.N.C. (Korsikaren askapen nazionalerako frontea) izeneko erakunde politiko-militarra. Urte honen hasieran legez kanpo jarri zuen Frantziako estatuak. Bere burruka armatuaz hainbat atentatu zaratatsu eginak ditu erakunde horrek.

Ba da —ba zen—, ordea, beste erakunde politiko bat ere: CCN (Korsikar Batzorde abertzaleak). Irailaren 27an legez kanpo jarri zuen Frantziako Gobernuak. Aitzakia? F.L.N.C.-ren babespea zela. Horrela, Korsikako erresistentzia gogorraren ahots politikoa ixilerazi eta arazo militar huts bihurtu nahi zuen nonbait Frantziako Gobernuak.

Baina handik bost egunetara berpiztu zen, beste izen batekin: MCA (Autodeterminaziorako korsikar mugimendua). Normala denez, aurrekoa baino jarrera eta abiaburu politiko zorrotzago eta errotikoagoekin. Lehen aldiz jarri da Korsikan Autodeterminazioa indar politiko baten helburu politiko baten helburu eta ezaugarri bezala. Erabaki politiko berria, noski. MCA helburu politiko hauekin sortu da, izan ere: Korsikar Herria halakotzat ezaguteraztearen alde, haren eskubide nazionalen alde, Autodeterminazio-eskubidearen alde burrukatzeko. Askapen nazionala eta askapen soziala, kapitalismoaren kontra, dira bere burrukaren bi ardatzak.

500 militante bildu ziren batzarrean urriaren 2an, MCA erakunde berria eraikitzekoan.

F.L.N.C.-ren eta MCA-ren inguruan, eta burruka abertzale hori bultzatzen duen hilabetekari bat ere ba da: U RIBOMBU. Azaroko zenbakia esku artean izan dut oraintxe. «Apologia del terrorismo» dela eta, gure inguru hauetan dabilzan astinduak, erasoak, oihiak eta eskandaloak ikusita, argigarri xamarra da O RIBOMBU, aldizkari legezkoaren orrialdeak ikustea: Orrialde eta erdi betebeteak dakartza F.L.N.C.-ren prentsaurrekoa ia oso-osorik jasoaz. Bertan ematen du erakunde politiko-militarrak hainbat berri, azken urteko gorabeherei buruz, eta bereziki Frantziako Gobernu sozialistak eginiko ahaleginei buruz, berriekin elkarrizketak izateko. Honela du titulua prentsaurrekoak: «Le nouveau Pouvoir a tenté à plusieurs reprises d'entrer en contact avec nous». Bitxia? Arazo honek egun hauetan gure artean dabilenaren kopia —edo alderantziz— ematen du, ala ez? Jakina: Frantziako Gobernu sozialista eta



Espainiakoa oso kidekoak bait dira! Haiek ere ba dute nonbait Txiki Benegas-en bat.

Baina hori eta beste hainbat gauza salatu ezezik, beren ikuspegi politikoa ematen dute Korsikako burrukalari politiko-militarrek, bertako oraingo egoerari buruz. Hori guztia jasotzen du O RIBOMBU aldizkariak. Hala ere legezkoa da; oraindik behintzat.

Areago: Lehen orrialdean begiratu den dut, eta zera ikusten: «Une honetan hogeitabost bat korsikar abertzale (patriota) daude espetxean». Ez dago urruti joan beharrik, erakunde politiko-militarreko burrukalariak izango direla asmatzeko. Baina laugarren orrira banoa, nere zalantza guztiak kentzen zaizkit, honela hasten bait du lehen aipaturiko prentsaurrekoaren aurkezpena: «FLNC-eko abertzaleek

(«patriotes») emandako hamairu orriko testua ia oso-osorik argitaratzen dugu hemen».

Sozialistak omen dira Frantziako gobernuan agintzen daudenak; sozialistak eta haien adiskideak omen dira Madrilen agintzen dutenak ere. Baina nonbait ez dute berdin ulertzen adierazpen edo espresio-askatasuna.

Ibilalditxoren bat egin beharko luke Barrionuevok Parisera, Mauroy ikustera —edo Defferre, berdin da—. Harek erakutsiko dio nola legez kanpo jarri Herri Batasuna, edo beste edozein; bestalde, berak hari erakutsi ahal izango dio, nola egin terrorismoaren apologiaren kontrako lege dotorea.

Paulo
AGIRREBALTZATEGI